

Txapeldunak



JON ALONSO
ITZULTZAILEA

Euskal herritar gehienak bezala, Athleticean alde nengoen ni lehengoan, zalantzarik gabe. Euskal herritar gehienak bezala? Beharbada ez dago hain argi hori. Gipuzkoa aldean zer uste duten alde batera utzita –denetarik izango da, noski–, gehiegi bilatu gabe gazte batzuk topatu ditut Iruñean, Mallorca-ekin zihoazenak. Gazte horiek *navarristak* ote ziren uste duenarentzat, argitu egingo dut: nafarrak, euskaldunak eta abertzaleak dira.

Hona lehen ebidentzia bat: futbolarik ez gaitu batzen. Are, futbolarik aprobetxatu egiten du prentsa jakin batek gure arteko diferentziak eta ezinikusiak areagotzeko, eta etekin handiak lortzen ditu. Egia da, ordea, futbolarik ez genukeela epaitu behar eraikuntza nazionalan daukan eraginaren arabera –nahiz eta eragina duen, benetan–. Futbolarik ez da politika. Futbolarik futbolarik da. Ez da egia txikiagoa, baina, futbolarik eta politikarik elkar ukitzen duten puntu bat bada-goela. Hori horrela, batzuek eskertuko genuke baldin eta politikariek forofohutsak balira bezala jokatu ez balute, kanpainen bazeuden ere. Zer esanik ez

Futbolak ez gaitu batzen. Are, futbolarik aprobetxatu egiten du prentsa jakin batek gure arteko diferentziak eta ezinikusiak areagotzeko

ezker abertzaleko pertsonalitate erreferentzialek, beren forofismoarekin lotsagorritu egin gaituztenek.

Lotsagorritu egin gintuen bezala ETBko kate guztiek, aldi berean, ditxosozko gabarraren ibilaldia emateak. Amigo, han ez zen ihes egiterik. Aukerak bi baino ez ziren: gabarra edo gabarra. Ez zegoen besterik. Tira, bai, ETB ez zen beste kate batera pasatzea. Tabarra,

azkenean, askok aldi berean bataiatu genuen bezala.

Horretan guztian bada atzeko plano batetik ibiltzen den itzal bat, sortzen den susmo bat. Eta ez da garai bateko “futbolarik herriaren opioa da” edo gisa-korik. Are, opio-dosi txiki bat gaizki ez datorrelakoan nago, bestela hain da jasanezina eta herstura-eragilea eguneroko panorama. Susmo hori beste hau da: Bilbok patrimonializatu duela ez bakarrik Euskadirean ideia –hori larria litzateke, baina neurri batean ulergarria–, baizik eta baita Euskal Herriarena ere. Alegia, batzuen buruan ekuazio hau baino ez dabilela: Bilbo = Euskadi = Euskal Herria.

Jakina, testuinguru honetan “Bilbo” esatea ezer ez esatea da. Nor da “Bilbo” delako hori? Nortzuek osatzen dute “Bilbo” hori? Ez dakit. Norbaitek baldin badaki eta esaten badit, ordea, nik amesten dudana nazioaren etsairik amorratuenak seinalatuko dizkit.

Ni soziologoa banintz saiatuko nintzateke gaiari zukua ateratzen. Ez naitenez, zorionak txapeldunei eta aupa Athletic. ●



ATXEGA JAUREGIA JATETXEA

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENU BEREZIAK
EKITALDIAK, OSPAKIZUNAK, FAMILIA TOPAKETAK...

USURBIL • 943 37 11 50 • www.atxegajauregia.com